

BALIO PROPOSAMENA

Guk proposatzen duguna aplikazio bat sortzea da. Aplikazio horrekin lortuko dugu maskotak dituzten pertsonen laguntzea. Gure lehiakideengandik bereizten gaituena zerbitzu osoa ematea da. Hau da, bezeroek maskota eskuratzen dutenetik, hil arte, gu zerbitzua emango diegu.

Honako hauek izango dira gure aplikazioaren bidez emango ditugun zerbitzuak:

Bezeroak maskota bat erosten duenean edo horretaz arduratzen denean, albaitari batek mikrotxipa jartzea eskaintzen diogu.

Gps-ak dituzten lepokoak ere eskaintzen dizkizuegu, galduz gero, gure aplikaziotik maskota aurki dezaten.

Aplikazioa erabiliz, albaitariarekin hitzordua hartu ahal izango dute nahi duten guztietan. Albaitaria bezeroaren etxera joan daiteke edo bezeroak albaitaritzako klinikara joan ahal izango du

Maskota hiltzen denean, gure zerbitzuak kontratatu ahal izango dituzte senitartekoekin agur bat egiteko eta errausteko.

Gure mozkinen zati bat, zaintza eta laguntza behar duten etxerik gabeko animalientzat izango da: etxe bat eta lagun diezaiekeen norbait bilatzen diegu.